

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Musikariak Ikastetxeetan programan Nafarroako 37 ikastetxek eman dute izena

*Hogeika musikari eta abeslarik parte hartuko dute 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimenean, urrian hasiko dira saioak*

Larunbata, 2018.eko irailak 29

### Musikariak

ikastetxeetan programan parte hartu zezaketeen

ikastetxeengehiengoak izena eman du ekimenean, hortaz arrakastatsua izan da ekimen honen lehendabiziko edizioa. Hezkuntza departamentuak datorren hilean abian jarriko duen programan 43 ikastetxek zuten izena emateko aukera eta horietatik 37k parte hartuko dute. Ziklo hau 14 eta 18 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta eta bertan hogeika musikari eta abeslari euskaldunek hartuko dute parte. Ekimen honen helburua euskal musikaren ibilbidea ezagutzera eman eta euskararen transmisioa bultzatzea da.



Musikari batzuek ikastetxeetara joango dira.

2018ko urritik abendura bitartean antolatuko dira saioak. Ikastetxeek saio bat baino gehiago edukitzeko aukera izanen dute, ikasmaila bakoitzean dagoen matrikula kopuruaren arabera. Saioa antolatu ahal izateko, ikasmaila horretan gutxienez 15 ikasle beharko dira. Saio bakoitzean, bestalde, ez dira 40 ikasle baino gehiago egonen, oro har. Saio horiek eskaintzeko, ekimenean parte hartzen duten musikari, artista eta abeslariak, Hezkuntza departamentuan antolatutako formazio saioetan parte hartu dute.

Ikastetxeetara joanen diren musikarien artean, euskal kantagintza berrienaren izen ezagun ugari dago, besteak beste: Amorante, Eñaut Elorrieta, Gorka Urbizu, Iker Lauroba, Ines Osinaga, Inun, Jon Basaguren, Joseba B.Lenoir, Joseba Irazoki, Jurgi Ekiza, Keu Agirretxea, La Basu, Maria Rivero, Mikel Markez, Miren Narbaiza, Olatz Salvador, Panti Bidart, Pelax, Petti, Rafa Rueda, Tristtan Mourguy, Xabi San Sebastian eta Zuriñe Hidalgo.

Programaren aurkezpenean Hezkuntza departamentuan egin bezela, ikastetxeetan ere emanaldi akustikoa eskainiko dute musikariek.

Hezkuntza departamentuko Euskara Sailak antolatutako programa honen baitan 88 saio eskaintzea aurreikusi da. Saio bakoitzak 90 minutuko iraupena izango du eta bertan abeslari bakoitzak euskal musikan bere

ibilbidearen errepassoa egingo du eta ondoren bere musikak izan duen jatorria eta bilakaera azalduko ditu. Gainera, idazle zein olerkariak beraien letrak egiteko egiten duten lana ere aipatuko dute. Gainera, artista bakoitzak azalpenak musika emanaldiekin uztartuko ditu.